

**8.16 GASTEIZKO AUTOBUS-GELTOKIKO LURRAZPIKO PARKINGA
ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK**

1.- Xedea. Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 2.1.h artikuluan eta, horren haritik, 43.ean xedatutakoaren ildotik ezartzen dira "Gasteizko autobus-geltokiko lurrazpiko parkinga erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak".

2.- Zenbatekoa. Hauek izango dira zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezio publikoak:

IBILGAILUEN ABONAMENDU-TARIFAK

Hilekoa	40,07 euro
Egunez, asteleheneetik larunbatera, 7:00etatik 20:30era	30,05 euro

Oharra: hurbiltasun-txartelaren kostua horren barruan sartzen da.

TXANDAKAKOEN TARIFAK

1. minutua	0,505 euro
2. minututik 30.era	0,020 euro
31. minututik 60.era	0,030 euro
61. minututik 120.era	0,025 euro
121. minututik 600.era	0,025 euro
Egunean, gehienez	15,655 euro

Bidaiariei geltokira laguntzea errazte aldera, tarifaren ehuneko 100eko hobaria aplikatuko da aparkaldia 15 minutukoa edo hortik beherakoa bada.

Erabiltzaileak ordaindu beharrekoa kalkulatzeko, minutu-kopurua eta minutu bakoitzeko zenbatekoa biderkatzearen emaitza gehituko zaio zati finkoari.

Sortzen den zenbatekoa bost zentimoren multiplo txikiagora biribilduko da.

DESKONTU-BONUAK

60 minutura bonoa —deskonturik gabeko tarifaren % 50—: 1,00 euro.

3.- Ordaintzera behartuak. Autobus-geltokiko lurrazpiko parkingeko aparkalekuak erabiltzen dituztenak egongo dira behartuta finkatutako prezio publikoa ordaintzera.

4.- Ordaintzeko obligazioa. Autobus-geltokiko lurrazpiko parkingeko aparkalekuak erabiltzen hastean sortzen da ordaintzeko obligazioa, edozein delarik ere erabilera-modalitatea.

Gasteizko autobus geltokia ustiatzeko barne araudian xedatutakoak arautuko ditu aparkalekuen erabilera eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak.

5.- BEZ. Tarifen zenbatekoei Balio Erantsiaren gaineko Zerga aplikatuko zaie, indarrean dagoen legediaren arabera.

6.- Honako hauek aplikatuko zaizkio finkatutako prezio publikoari: Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 43. artikulutik 50.era artekoak; Diru-bilketa Araudi Orokorra, uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuaren bitartez onetsia, eta Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorra.

AZKEN XEDAPENA

Behin betiko onespeneraren erabakia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza fiskal hau, eta berriaz aldatu edo indargabetu arte egongo da hala.